



## ABONO EGOKITUA

### 6. BEZEROEN HARREMANAK

Guk gure bezeroekin bi harreman mota izango ditugu.

Alde batetik, harreman pertsonala izango dugu, izan ere, enpresako langile bat joango da bezeroaren lurrak aztertzeraz, eta bezeroarekin aurrez-aurre hitz egingo du bere beharrak zeintzuk diren azaltzeko, prozesua nolakoa izango den argi uzteko, eta aurrekontu bat egiteko.

Bestalde, baliabide automatizatua ere izango dugu, interneten gure web-orria izango dugulako eta bezeroek bertatik gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dutelako (telefono bidez edota email bidez). Nahiz eta, baliabidea automatizatua izango den, harremanak berdin berdin pertsonala izaten jarraituko du, pertsona bat jarriko baita bezeroarekin fisikoki harremanetan.

Web orri horretan, gure produktuaren ezaugarriak eta berezitasunak zeintzuk diren argi utziko ditugu eta honek bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea eta salmenta kopurua haztea ahalbidetuko digu. Eta gainera, web orrian ohiko galderen atala jarriko dugu, bezeroak produktua erosi baino lehen eduki ditzaken zalantzak argituak izan ditzan.